

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA

Arabako Mendialdeko Kuadrillaren bizikletak, karpak eta mahaiaik alokatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantza behin betiko onartzea

Jendaurrean egon den aldian ez da ez erreklamaziorik ez alegaziorik aurkeztu, iragarkia 2026ko apirilaren 8ko ALHAOn (40. zk.) argitaratu zenetik aurrera. Ordenantza hori Arabako Mendialdeko Kuadrillako Batzarrak onartu zuen, 2026ko martxoaren 25ean egindako ezohiko bilkuran, eta behin betiko onartu zen bizikletak, karpak eta mahaiaik alokatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantza.

Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du indargabetzea edo aldatzea erabakitzen ez den bitartean.

Santikurutze Kanpezun, 2026ko maiatzaren 25ean

Presidente

EDUARDO RUIZ DE LOIZAGA SANZ

ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAREN BIZIKLETAK, KARPAK ETA MAHAIK ALOKATZEKO ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

HITZAURREA

Arabako Mendialdeko Kuadrillak "bizikletak eta karpak alokatzeko zerbitzuak arautzen dituen ordenantza" gisa izendatutako arau-proiektu bat egitea eta onartzea sustatu nahi du.

Zerbitzu horiek ezartzen laguntzeko arau-proiektu honen bidez, esparru juridiko propioa eman nahi zaio erakundeari, oinarritzko arau-xedapenak osatzeko, garatzeko eta erakundearen egiturara egokitzeko.

Ordenantzak Arabako Mendialdeko Kuadrillan ezarritako zerbitzuak arautzen ditu, bizikletak eta karpak alokatzeko sistemaren sarbidea, antolaketa eta funtzionamendua eta sistemaren erabiltzaileei ezartzen zaizkien betebeharrak arautuz.

Ordenantza honek Arabako Mendialdeko Kuadrillan ezarritako zerbitzuak arautzen ditu; bereziki, bizikletak eta karpak alokatzeko sistemaren sarbidea, antolaketa eta funtzionamendua, bai eta sistemaren erabiltzaileei ezartzen zaizkien betebeharrak ere.

Ordenantza honen bidez egiten den antolamenduak segurtasun juridiko egokia ematen du, eta bai erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak bai zerbitzua emateko baldintzak argi eta garbi arautzen ditu, hori guztia kuadrilla jarduketaren gardentasunari, efikaziari eta efizientziari dagokienez.

AURKIBIDEA

I. TITULUA. BIZIKLETAK ALOKATZEKO ZERBITZUA.

I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Zerbitzuaren xedea.
2. artikulua. Zerbitzuaren eremua eta definizioa.
3. artikulua. Bizikleta elektrikoen eta mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen kokapena.
4. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzaileak.
5. artikulua. Eskubide ekonomikoak.

II. KAPITULUA. Zerbitzuaren antolamendua eta funtzionamendua hiri-eremuan.

6. artikulua. Alokairu-zerbitzua erabiltzeko baldintzak.

III. KAPITULUA. Turismo bulegoan bizikletak alokatzeko zerbitzuaren antolaketa eta funtzio-
namendua.

7. artikulua. Alokairu-zerbitzua erabiltzeko baldintzak.

II. TITULUA. KARPAK ETA MAHAIK ALOKATZEKO ZERBITZUA.

I. KAPITULUA. Karpak alokatzeko zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendua.

8. artikulua. Alokairu-zerbitzua erabiltzeko baldintzak.

III. TITULUA. ESKUBIDEAK, BETEBEHARRAK, DEBEKUAK ETA ZEHAPEN-ARAUBIDEA.

I. KAPITULUA. Eskubideak, betebeharrak eta debekuak.

9. artikulua. Eskubideak.
10. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak eta erantzukizunak.
11. artikulua. Debekuak.

II. KAPITULUA. Zehapen-araubidea.

12. artikulua. Printzipio orokorrak.
13. artikulua. Arau-haustek.
14. artikulua. Arau-hauste arinak.
15. artikulua. Arau-hauste larriak.
16. artikulua. Arau-hauste oso larriak.
17. artikulua. Zehapenak.

18. artikulua. Arau-hauste eta zehapen independenteak eta beste agindu sektorial batzuek
eska dezaketen ordena penalaren lehentasuna.

19. artikulua. Erabiltzaileari aldi baterako edo erabat erabiltzeko debekua.

20. artikulua. Datuen babesa.

Xedapen gehigarri bakarra.

Azken xedapena.

1go eranskina. Bizikleta elektrikoak alokatzeko aukeratutako puntuen hasierako kokapena.

2garren eranskina. Bizikletak eta karpak alokatzeko zerbitzuaren prezio publikoa.

I. TITULUA. BIZIKLETAK ALOKATZEKO ZERBITZUA**I. kapitulua. Xedapen orokorrak****1. artikulua. Zerbitzuaren xedea**

Zerbitzuaren xedea da herritarren eta bisitarien eskura jartzea bizikletak alokatzeko sistema bat, haien mugikortasuna modu jasangarri eta osasungarrian errazteko.

Zerbitzuak izaera ludikoa izango du, kuadrilla barruan paseatzeko eta joan-etorriak egiteko, eta pertsona fisikoei zuzenduta dago.

2. artikulua. Zerbitzuaren eremua eta definizioa

Zerbitzuaren aplikazio-eremua bizikleten zirkulazioa baimenduta dagoen bizikleta bideetara, bidegorrietara, kaleetara eta errepideetara mugatzen da.

3. artikulua. Bizikleten aparkalekuen kokapena

1. Bizikletak horretarako prestatutako gunetan daude eskuragarri.

Hasierako puntuen kokapena I. eranskinean ezartzen da.

2. Arabako Mendialdeko Kuadrillak askatasun osoz aldatu ahal izango ditu egungo kokalekuak, gunek berriak ezarri edo daudenak kenduz. Horretarako, identifikatu eta webgunean argitaratu besterik ez du egin beharko.

Zerbitzua 8:00etatik 21:00etara egongo da martxan, bizikletak jasotzeko, eta 22:00ak arte itzuli ahal izango dira ibilgailuak, herriguneetako kokalekuetan.

Turismo-bulegoan dagoen zerbitzuaren funtzionamendua 10:00etatik 22:00etara izango da uztailaren eta abuztuaren, eta urteko gainerako hilabeteetan, instalazioak irekitzeko ordutegiaren arabera.

4. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzaileak

1. Bizikleta horien alokairu-zerbitzua Arabako Mendialdeko Kuadrillako biztanleei eta bisitariari zuzenduta dago, baldin eta artikulua honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

2. Zerbitzua adin nagusikoek baino ezin dute erabili. Hala ere, adingabeek ere erabili ahal izango dute zerbitzua, baldin eta behar bezala baimenduta badaude eta beren gurasoek edo legezko tutoreek lagunduta badaude.

3. Erabiltzaileek, betiere, bizikletak zailtasunik gabe eta beraientzat edo hirugarren pertsonentzat arriskurik sortu gabe erabiltzeko gaitasun psikiko eta fisikoa izan beharko dute. Erabileraren ordenantza honen eta bideetako zirkulazioari buruzko gainerako araudi aplikagarriaren arabera izango da.

5. artikulua. Eskubide ekonomikoak

Zerbitzua eta hari atxikitako ondasunak erabili ahal izateko, erabiltzaileek Arabako Mendialdeko Kuadrillaren aldeko prezio publikoak edo kontraprestazioak ordaindu beharko dituzte. Horiek ordenantza honen II. eranskinean jasota daude.

II. kapitulua. Zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendua herrigunetan**6. artikulua. Alokairu-zerbitzua erabiltzeko baldintzak**

Bizikletak alokatzeko eskualdeko zerbitzua erabili nahi duen pertsona orok aldeztu aurretik deskargatu beharko du horretarako gaitutako gailu mugikorretarako aplikazio informatikoa (APP), bizikletak lokalizatzeko, nahi den denboran erabilerari erreserbatzeko eta desblokeatzeko, hala badagokio dagozkion eskubide ekonomikoak ordaindu ondoren.

Bizikleten ezaugarriak kontuan hartuta, adin nagusikoek bakarrik erabil dezakete zerbitzua. Hala ere, 16 urtetik gorakoek ere zerbitzua erabili ahal izango dute, baldin eta behar bezala baimenduta badaude eta gurasoek edo legezko tutoreek lagunduta badaude.

Zerbitzua erabiltzeko gehieneko denbora 14 ordukoa izango da, eta bizikleta egun berean itzuli beharko da, 3. artikuluan ezarritako muga-ordua gainditu gabe.

Elkarren segidako bi erabileraren artean 15 minutu igarotzen utzi beharko da. Bestela, eten-gabeko erabileratzat hartuko da, eta, beraz, tarifatu egingo da, nahiz eta ibilgailua aldatu. Zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzaren erabilera-denborei dagozkien datuak sistema kudeatzen duen zerbitzari informatikoak emango ditu.

Artikulu honetan xedatutakoa betetzen ez bada, ordenantza honetan ezarritako zehapen-araubideak beteko dira.

Bizikletak itzultzeko, erabiltzaileak bere ibilbidea amaitzen duenean, horretarako gaitutako edozein tokitan aparkatu beharko du; okupatuta badaude, aplikazioak 30 minutuko gehigarri bat emango du, kosturik gabe, beste puntu batean aparkatu ahal izateko.

Inola ere ezin izango dira bizikletak aparkatu, baldin eta oinezkoen joan-etorria, hiri-altzarien erabilera, zerbitzu edo higiezinatarako sarbidea edo eraikinen fatxadaren ondokoa oztopatzen badute.

Zerbitzua eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan egongo da martxan, ibilgailuak itzultzeko soilik, zerbitzuaren ordutegiaren barruan egin ez bada, bizikletak itzultzea errazteko.

Bizikleta alokatzeko prezioa Arabako Mendialdeko Kuadrillako prezio publikoen ordenantzan dago araututa, eta hiru tarifa daude erabilgarri: egun erdia, egun osoa eta ordu bakoitza.

Egun erdiko alokairutzat joko da 8:00etatik 15:00etara edo 15:00etatik 22:00etara egiten dena.

Egun osoko alokairutzat hartuko da 8:00etatik 22:00etara 7 ordu baino gehiagoz egiten dena.

Sistemaren osagai guztiak, bizikletak barne, Kuadrillako ondasun publikotzat hartzen dira, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen XI. Tituluan arau-hauste eta zehapenatarako ezarritako araubidea aplikatuko da.

III. kapitulua. Zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendua turismo-bulegoan

7. artikulua. Alokairu-zerbitzua erabiltzeko baldintzak

Turismo-bulegoan dagoen bizikletak alokatzeko eskualdeko zerbitzua erabili nahi duen pertsona orok dagokion fitxa bete beharko du, ordenantza honen III. eranskina.

Bizikleta elektrikoak alokatzeko zerbitzua adin nagusikoek baino ezin dute erabili. Hala ere, 16 urtetik gorakoek ere zerbitzua erabili ahal izango dute, baldin eta behar bezala baimenduta badaude eta gurasoek edo legezko tutoreek lagunduta badaude.

Zerbitzua erabiltzeko gehieneko denbora 10 ordukoa izango da, betiere instalazioak irekitzeko ordutegiaren barruan.

Turismo bulegoan dauden bizikleten alokairu zerbitzua egun erdiz edo egun osoz egin ahal izango da.

Egun erdiko alokairutzat hartuko da 10:00etatik 15:00etara edo 15:00etatik 20:00etara egiten dena, betiere instalazioak irekitzeko ordutegiaren arabera.

Egun osoko alokairutzat hartuko da 10:00etatik 20:00etara 5 ordu baino gehiagoz egiten dena.

Artikulu honetan xedatutakoa betetzen ez bada, ordenantza honetan ezarritako zehapen-araubideak beteko dira.

Bizikletak turismo-bulegoan itzuli beharko dira alokatu diren aldia amaitzean.

Inola ere ezin izango dira bizikletak aparkatu, baldin eta oinezkoen joan-etorria, hiri-altzarien erabilera, zerbitzu edo higiezineterako sarbidea edo eraikinen fatxadaren ondokoa oztopatzen badute.

Zerbitzua turismo-bulegoa irekita dagoen egun eta orduetan egongo da martxan.

Sistemaren osagai guztiak, bizikletak barne, Kuadrillako ondasun publikotzat hartzen dira, eta arau-hausteetarako eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen XI. tituluaren zehatzeko ezarritako araubidea aplikatuko da.

II. TITULUA. KARPAK ETA MAHAIAK ALOKATZEKO ZERBITZUA

I. kapitulua. Zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendua

8. artikulua. Alokairu-zerbitzua erabiltzeko baldintzak

Karpak eta mahaiaik alokatzeko zerbitzua erabili ahal izango dute Arabako Mendialdeko Kuadrilla osatzen duten udalek eta administrazio-batzarrek, bai eta Arabako Mendialdeko Kuadrillan egoitza duten irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeek ere.

Mahaiaik eta karpak alokatzeko zerbitzua erabili nahi duen pertsona orok dagokion eskabidea bete beharko du, ordenantza honen IV. eranskinean jasotakoa.

Karpak eta mahaiaik 8:00etatik 15:00etara jaso eta itzuliko dira kuadrillako egoitzan edo Aldako biltegian. Kuadrillak erabakiko du non eta zer ordutan jaso eta itzuli behar diren.

Karpen eta mahaiaien garraioa zerbitzua eskatu duen pertsonaren kontura izango da, eta Kuadrillak ez du inola ere bere gain hartuko.

III. TITULUA. ESKUBIDEAK, BETEBEHARRAK, DEBEKUAK ETA ZEHAPEN-ARAU BIDEA

I. kapitulua. Eskubideak, betebeharrak eta debekuak

9. artikulua. Eskubideak

1. Pertsona orok du zerbitzua erabiltzeko eskubidea, 4. artikuluan ezarritako adin- eta edukiera-baldintzak betez gero.

2. Pertsona orok du alokatutako ondasunak erabiltzeko eskubidea, betiere horrelako ibilgai-luei aplikatu beharreko zirkulazio-arauak betez.

3. Edozein ondasun erabiltzen duen pertsonak eskubidea du funtzionamendu-egoera ego-kian egoteko, eta bere funtsezko zatiak garbi behar bezala erabiltzeko.

10. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak eta erantzukizunak

1. Erabiltzaile guztiek alokairu-zerbitzua behar bezala erabili behar dute, eta ahalik eta arreta handienarekin jardun behar dute.

2. Erabiltako ondasunak erabiltzailearen zaintzapean eta erantzukizunpean geratuko dira erretiratzen direnetik alokairu-puntu batera itzultzen diren arte, eta kuadrillaren aurrean erantzule izango da sistemako elementuetan eragiten dituen galerengatik edo kalteengatik, elementu horiek erretiratzen direnetik itzultzen diren arte.

3. Zerbitzuaren erabiltzaileak, tutoreek edo legezko ordezkariak, adingabeen kasuan, izango dute bere buruari edo hirugarren pertsonari eta edozein motatako ondasunei eragindako kalteen erantzukizun bakarra eta osoa, egin duen erabilera normalagatik edo anormalagatik.

4. Bizikletak, karpak eta mahaiaik ordenantza honetan ezarritakoaren arabera bakarrik erabili ahal izango dira.

5. Erabiltzaileek, erabilera-denboran, aplikazio-arauak errespetatu beharko dituzte eta behar bezala erabili beharko dituzte, eta aurkitu zituzten egoera berean itzuli beharko dituzte, ondo eta garbi.

6. Erabiltzaileak berehala jakinarazi beharko ditu zerbitzuarekin lotuta gertatzen diren gora-beherak, hala nola erabilera eragozten edo zailtzen duen narriadura edo akatsa, bai eta erabileraren ondorioz erabiltzaileak izan dezakeen edozein egoera ere.

Bizikletak alokatzeko zerbitzuaren kasuan, gorabehera mekanikoa bada, ibilgailuak erabiltzailearen ardurapean geratuko dira, harik eta gordailutu eta zerbitzua mantentzeko langileen eskura jarri arte.

App-ak abisu-zerbitzu bat izango du edozein gorabeheraren berri emateko. Turismo-bulegoan dauden bizikleten kasuan, telefono-dei baten bidez abisatu beharko da. Karpen eta mahaien kasuan, kuadrillako egoitzara deitu beharko da telefonoz.

7. Ondasunak itzultzen ez badira, bi errekerimendu bidaliko zaizkio erabiltzaileari, itzultzeko eskatuz. Ondoren, erabiltzaileari eskatuko zaio ondasunak itzultzeko edo haien balioa ordaintzeko.

Horretarako, dagokion aplikazio informatikoan erabiltzaileak bere betebeharrak onartzen dituela adieraziko da, bizikleten balioaren berri emanez, eta jakinarazpenetarako helbide bat adierazi beharko da.

Turismo-bulegoan dauden bizikletak, karpetan eta mahaietan alokatzeko zerbitzuaren kasuan, alokairu-eskaerak erabiltzailearen betebeharren onarpena izango du, bizikleten balioaren berri emango da eta jakinarazpenetarako helbide bat adierazi beharko da.

8. Erabiltzailea beharturik dago kuadrillari jakinaraztera ondasuna edo haren elementuak galdu diren edo lapurtu dituzten, eta erabiltzaileak bere gain hartuko du horrek dakarren erantzukizuna. Ebasketa edo lapurretaren kasuan, erabiltzaileak salaketa egin beharko du, eta kopia aurkeztu beharko du hala posta elektronikoaren bidez, nola egoitza elektronikoaren bidez edo aurrez aurre kuadrillaren egoitzan edo turismo-bulegoan.

9. Erabiltzaileak izango dira, halaber, edozein agintaritzak edo organismok (estatukoa, autonomia-erkidegokoa edo tokikoa) gidatzeagatik ezartzen dituen betebeharren edo arau-hausteen erantzule, une oro.

10. Hirugarrenei ezin zaie erabilera laga, inola ere. Erabiltzaileari APPrako sarbidea ematen dioten gakoak ere ez zaizkie hirugarrenei lagako.

11. Bizikletak erabiltzailea bere objektu pertsonalekin garraiatzeko baino ez dira erabiliko, eta ezin izango dira beste pertsona batzuk garraiatu, horretarako gaitutako bizikletak, animaliak edo salgaiak izan ezik.

12. Karpak eta mahaiak beren xedeetarako baino ez dira erabiliko.

11. artikulua. Debekuak

Honako jokabide hauek debekatzen dira:

1. Bizikletak baimendutako eremuetatik kanpo erabiltzea.
2. Hirugarrenen alde, irabazi-asmorik gabe edo irabazi-asmoarekin, edozein xedapen-egintza egitea, mailegatzea, alokatzea edo lagatzea.
3. Ondasuna leku desegokietan edo modu desegokian erabiltzea.
4. Ondasunak desmuntatu edo manipulatzeko.
5. Bizikletan edozein pertsona, animalia edo gauza garraiatzea, eta horretarako balio dezaketen elementu erantsiak integratzea.
6. Ondasunak justifikaziorik gabe abandonatzea.

II. kapitulua. Zehapen-araubidea

12. artikulua. Printzipio orokorrak

1. Ordenantza honen zehapen-araubideak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta hura garatzeko arauetan jasotako printzipioei jarraitzen die, bai eta aplikatu beharreko Estatuko, autonomia-erkidegoko eta kuadrillako gainerako legeriari ere.

2. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. tituluan jasotako xedapenak ere aplikatuko dira.

13. artikulua. Arau-haustekak

1. Administrazioko arau-haustekak dira ordenantza honetan ezarritako betebeharrak, debekuak eta baldintzak ez betetzea.

2. Arau-haustekak dagokion prozedura izapidetu ondoren zehatuko dira, aplikatzekoa den estatuko, autonomia-erkidegoko eta kuadrillako legerian ezarritakoaren arabera.

3. Arau-haustekak arinak, larriak eta oso larriak izango dira.

14. artikulua. Arau-hauste arinak

Arau-hauste arina da:

1. Bizikletak aparkatzea pasabidea oztopatzen duten eta segurtasun-gabeziako egoerak sustatzen dituzten eremu egoki edo seguruetan, alokairuak irauten duen bitartean.

2. Ondasunak itzultzeko atzerapena, 8 ordura artekoa, justifikatutako arrazoiengatik ez bada.

3. Edozein motatako borondatezko narriadura arinak, eta zikinkeria instalazioetan eta zerbitzua osatzen duten elementuetan. Narriadura arintzat hartuko da, teknikari eskudunak ebaluatu ondoren, ordeztearen kostua 200,00 eurotik gorakoa ez denean.

4. Oker aparkatzea eta gaizki itzultzea, lapurreten aurkako segurtasuna bermatu ezin izateko moduan.

5. Ondasunak alokairu-puntuak itzultzeko unera arte egon daitezkeen kalte, galera edo lapurretatik babesteko betebeharra ez betetzea.

6. Erabilera gertatzen den edozein gorabehera edo istripu zerbitzuari ez jakinaraztea, hirugarrenei kalteak eragiten dizkienean.

7. Beste pertsona baten datuak erabiltzea alokairua eskuratzeko.

8. Zerbitzuari ez jakinaraztea erabiltzailearen datuen aldaketa.

9. Ordenantza honetako arauen beste edozein arau-hauste, larritzat edo oso larritzat tipifikatuta ez badago.

15. artikulua. Arau-hauste larriak

Arau-hauste larria da:

1. Ondasunak hirugarrenei ematea.

2. Kalteak eragitea horien erabilera okerragatik, ondasuna konpontzeak eragindako gastuak bere gain hartu behar izatearen kaltetan izan gabe.

3. Bizikletak ezarritako eremuetatik kanpo erabiltzea.

4. Ondasunak diseinatuta dauden helburuetarako ez beste batzuetarako erabiltzea.

5. Ibilgailu horientzat ezarritako trafiko-arauak ez errespetatzea.

6. Edozein pertsona, animalia edo gauza garraiatzea, bai eta helburu horietarako balio dezaketen kanpoko elementuak integratzea ere.

7. Justifikatutako arrazoiek eragin gabe 8 ordutik gorako atzerapena itzulketan.

8. 12 hilabeteko epean bi falta arin egitea.

16. artikulua. Arau-hauste oso larriak

Arau-hauste oso larria da:

1. Ondasunak irabazi-asmoz erabiltzea; berariaz debekatuta dago haiek alokatzea edo saltzea, bai eta merkataritza-helburuetarako, salgaiak garraiatzeko edo beste edozein erabilera profesionaletarako erabiltzea ere.

2. Galera, lapurreta edo ebasketagatik egindako salaketaren kopia ez ematea salaketaren dataren ondorengo 24 orduko edo hurrengo egun baliodunaren gehieneko epean.

3. Instalazioak eta sistemako elementuak larriki hondatzeko ekintzak.

4. Abandonua eta justifikaziorik gabeko galera.

5. Itzulketa egun bat baino gehiago atzeratzea, justifikatutako arrazoiengatik ez bada.

6. 12 hilabeteko epean bi hutsegite larri egitea.

17. artikulua. Zehapenak

Aurreko artikuluetan tipifikatutako arau-hausteak honela zehatuko dira:

1. Arau-hauste arinak: 750,00 eurotara arteko isunarekin.

2. Arau-hauste larriak: 751,00tik 1.500,00 eurotara bitarteko isunarekin.

3. Arau-hauste oso astunak: 1501,00tik 3.000,00 eurotara bitarteko isunarekin.

Zehapen horiek ezarri ahal izango dira, arau-hausleari eragindako kaltea konpontzeko eskatzea alde batera utzi gabe.

18. artikulua. Arau-hauste eta zehapen independenteak eta beste sektore-agindu batzuek eska dezaketen zigor-ordenaren nagusitasuna

1. Ordenantza honetan tipifikatutako arau-hauste horiengatik ezarritako zehapenak independenteak dira tipifikatutako egintzak beste antolamendu sektorial batzuetan xedatutakoaren arabera erantzukizuna egon daitekeenean.

2. Ordenantza honetan arau-haustetzat tipifikatutako jokabideek erantzukizun penala dute-nean, zehapen-prozedura eten egingo da, harik eta jarraitzen den prozedura penala ebatzi arte.

19. artikulua. Erabiltzaileari aldi baterako edo behin betiko erabiltzeko debekua

Dagozkion zehapenak ezartzeaz gain, erabiltzailea aldi baterako edo betiko desaktibatuko da alokairu-sisteman, honako irizpide hauen arabera:

1. Justifikatu gabeko ondasunen entrega atzeratzen bada, erabiltzailea desaktibatu egingo da atzerapen-denboraren arabera, eta ondorio hauek izango ditu:

a) Entrega ordubete baino gehiago eta bi ordu baino gutxiago atzeratzen bada, ezingo da zerbitzua erabili 5 egun naturaletan.

b) Entrega 2 eta 8 ordu bitartean atzeratzen bada, debekua 15 egun naturalekoa izango da.

c) Hartu eta 8-24 ordura entregatzen bada, hiru hilabeterako debekatuko zaio.

d) Alokairua hasi eta 24 ordu baino beranduago entregatzen bada, debekatuta egongo da sei hilabetez.

2. Zerbitzua erabiltzeko debeku-aldiak egun osokoak izango dira, eta entrega atzeratzen den egunaren biharamunean hasiko dira.

3. Kuadrillako alokailu sisteman baja emango da honako egoeratan: bizikletak abandonatzen badira, gertatzen diren gorabeherak berandu jakinarazten badira edo ez badira jakinarazten -hala nola haien erabilera eragozten edo zailtzen duen narriadura edo akatsa- edo sistemaren ondorioz erabiltzaileari edo sistemari eragin diezaiokeen edozein egoera, edo ebasketa- edo lapurreta-kasuan poliziaren aurrean salaketarik ez badago.

4. Zerbitzua erabiltzeko debekuak ez du inolako prezio publikorik itzultzeko eskubiderik emango.

20. artikulua. Datuen babesa

1. Sistemaren erabiltzaileen datu pertsonalak informatikoki tratatuko dira, zerbitzua behar bezala emateko Arabako Mendialdeko Kuadrillarekin duten harremanaren ondorioetarako soilik.

2. Datu horiei dagokienez, erabiltzaileak datuak aurkaratzeko, eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubideak baliatu ahal izango ditu, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera.

3. Erabiltzaileak onartzen du emandako datu guztiak zehatzak direla eta ordenantza honetako baldintzak onartzen ditu.

Xedapen gehigarri bakarra

Ekitaldi berezietan, jaiegunetan, martxan jartzeko probetan edo mantentze-probetan kuadrillak beretzat gordetzen du funtzionamendu-arauak aldatzeko ahalmena, eta App-aren, Kuadrillako webgunearen eta beste bide ofizial batzuen bidez jakinarazteko.

Xedapen indargabetzailea

Ordenantza hau indarrean sartzen denetik aurrera, indargabetuta geratuko da Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrillaren ikus-entzunezko materialaren prezio publikoak eta mailegu-baldintzak eta jolas- eta kultura-erabileretarako baldintzak arautzen dituen ordenantza, gaur egun Arabako Mendialdeko Kuadrilla dena (ALHAO, 104. zk., 2005eko irailaren 16koa).

Azken xedapena

Ordenantza hau testu osoa ALHAOn argitaratu eta 15 eguneko epean jarriko da indarrean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

I. Eranskina. Bizikletak alokatzeko zerbitzurako hautatutako puntuen hasierako kokapena

1. Arabako Mendialdeko Kuadrillaren egoitza.

2. Kuadrillako turismo-bulegoa.

**II. eranskina. Arabako Mendialdeko Kuadrillak ematen
dituen zerbitzu eta jardueren prezio publikoak****1. Alokairu-zerbitzuen prezio publikoak.**

SERVICIO DE ALQUILER	PREZIOA	FIDANTZA
Bizikleta elektrikoa – ordu bat	2 €	20 €
Bizikleta elektrikoa – egun erdia	10 €	20 €
Bizikleta elektrikoa – egun osoa	20 €	20 €
Helduentzako bizikleta – egun erdia	5 €	10 €
Helduentzako bizikleta – egun osoa	10 €	10 €
Bizikleta aulkiarekin – egun erdia	6 €	10 €
Bizikleta aulkiarekin – egun osoa	12 €	10 €
Umeentzako bizikleta – egun osoa	10 €	10 €
Umeentzako bizikleta – egun erdia	5 €	10 €
Kaskoa	1 €	0 €
Karpa /Mahaia	0 €	150 €